

Auto striptease

Badira berba batzuk polise-
miko direnak, erabat. *Tta-*
kunkideok hitzetik hortzera
darabilgun “auto” delako
hori da bat. *Autoa* da
kotxea: automobila, beribila.
Autoa da teatroa, erlijio-antzer-
kia. *Autoa* da auzibide-agiria,
epailearen ebazpena.

“Auto” delako hori, izan,
aurrizki famatua ere bada: *auto-*
nomia, *autografoa*, *autozenta-*
tua... Berezkotasun-ideia bat
ekartzen digu horrek gogora.

Denak *autodun*, eta denak ekologista. Zintzo
arraio denak, den-denak: ministro izan, ekin-
tzaile izan, soldadu izan, apaiz izan. Baita Al
Gore bera ere.

Dokumental saritu eta famatu hori ikusi diot
nik ere amerikarrari. Eta, Ur, gustatu, niri ere ez
zait batere gustatu. *Zalditeriaren xazpigarrena*
bezala, ekologismoaren banderaren kirtenare-
kin jarri baita gure atzean.

* * *

Halere, lagunak, nire asmoa ez zen ekologis-
moaren zentzu puruaz aritzea. Ezta kotxe kon-
partituen zentzu hertsiaz. Ez. Ez zen hori nire
asmoa. Gai interesgarria den arren. Oso. Ezin-
bestekoa. Hil ala bizikoa. Halere, ez zen hori.

Argia izan ez baldin banaiz izkribuetan, bar-
katu. Edo, ziria sartu badizuet nahigabe.

Ihes egin diozue gaiari, lagunok.
Etsitzeko asmorik ez dut... Auto
konpartituarena, metafora zen. Hitz
jokoa. Gauzak argi esateko, argi ez
esatea. Politikaz ari nintzen. Antono-
masiaz, politikaz.

Ur, *Iparraldea* deitzen diogun
horretan bizi zara zu, Akitanian gal-
duta. *Nafarroako Erreina* deritzoten
horretakoa zaitugu zu, Angel. Men-
debaldeko *Euskadi Autonomi Erkide-*
goa bataio-izen luze xamarra eman
dioten horretan ordaintzen ditut nik
neure zergak. Hiru esparru eta hiru
espektro.

Auto konpartuari buruz ari nin-
tzenean, ari nintzen gure lurraldeeta-
ko administrazio-estatusak hobetzeko



J. I. Basterrvetxea

Errro

Apalategi

akordio politiko esanguratsu
eta posible direlakoei buruz.

* * *

Orain arte esandakoak
entzunda, eta idatzitakoak iraku-
rrita, etxe honetakoak nahiz bes-
tekoak, uste dut gure politikari
nagusiak ez daudela prest politi-
ka modu ekologikoan praktika-
tzeko eta kudeatzeko. Susmoa

dut, susmo, autoa konpartitzeko asmorik ez dutela
martxoan. Erratuta egon nahi nuke.

Triste nago, zeren toberak jo gabe joan baitira
aurtengo San Martinak... Txerri gorriak hil dituzte
baserrian. Bolandera eta suziri hitsak jaurti Getxo-
ko Justizia Jauregian. Arau guztiak hautsita ibili da
Borboia Ameriketara. Baina, berakatzak erein gabe
geratu dira.

Telesforo Monzon zenaren Maltzagarainoko
ekinbide politiko konpartituaz ari nintzen auto
konpartituaz ari nintzenean. Bidenabar, politika
abertzalearen eite ekologikoaz ari nintzen. Politika
abertzalearen ustiatze iraunkor eta ekologikoaz,
hain zuzen ere.

Martxoko hauteskudetegi begira, “ni” eta “neu”
dira egungo politika-ereduek sustatzen dituzten
argudio kamuts eta herrenak. “Ni” eta “neurea”.
“Ni” eta “neurekin”. “Ni” eta “neuri”.

Lehen hitzak ikasi berri dauzkan etxeko iloba
gaztetxoa ekartzen dit politika horrek gogora.
Auzo-lotsak gorriturik nago, politika deitzean horri.

Orain arte alderdi bati eta besteri
entzun izan diedana entzunda, eta gau-
zak doazen moduan, laguntxoak, mar-
txokoetan zaila izango zait inori ematea
nire botoa. Espainiako futbol-ligarako
bada ere, Maltzagarainoko gastuak par-
titzen ez baditugu, nago ez naizela ino-
ren autoan sartuko. Barregarriak irudi-
tzen zaizkit ikurrinak Gasteizko
Legebiltzarrean, San Mameseko palko-
etan, Iruñeko arrano tabernetan...

Nora ez dakidan arren, tentazioa dut
hara bizikletaz joateko, han toberak
jotzeko bakardadean... edo kanpaia.

Angel, autobus-geltoki berria egin
dizuete Iruñean, telebistak hala esan du.
Hurbilago geratu al da orain Maltzaga
hortik? ■



Maltzagarainoko gastuak partitzen

ez baditugu, nago ez naizela

inoren autoan sartuko.

Barregarriak iruditzen zaizkit

ikurrinak Gasteizko

Legebiltzarrean, San Mameseko

palkoetan, Iruñeko

arrano tabernetan...

